



Esp. kodea: 2024KZUD0010

Gaia: Arrasate Zientzia Elkartearekin hitzarmena
sinatzea

ALKATEAREN EBAZPENA
N24/03528

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez

EBAZTEN DUT:

Kultura batzordeburuak egindako proposamen hau onartzea

Arrasate Zientzia Elkartearekin hitzarmena sinatzea

Aurreikusita dago hitzarmena sinatzea Arrasate Zientzia Elkartearekin 20124n. Xede horrekin onartu zen Udal aurrekontuan hitzarmen bidezko laguntza kontu saila, 15.000 eurokoa.

Hauek kontuan izanik :

1.- Arrasate Zientzia Elkarte 1990 urtean sorturiko kultura elkarte del eta hauek dira erakundeak dituen helburu nagusiak:

- .Arrasateko kultura eta natura ikertu, zabaldu eta gai horien inguruan aholkua ematea
- Ondarearen erabilera arrazionala bermatzeko Arrasateko baliabide historiko-artistiko eta naturalei buruz aholkua ematea
- Harremana eta lankidetzat sustatzea antzeko helburua duten erakunde eta elkarteekin

2.- Arrasateko Udalak bere helburuen artean ditu Kultura ondarearen zaintza, kontserbazioa eta zabalkundea, bai eta herriko historiaren gaineko ikerketa bideratzea eta gizarteratzea ere.

3.- Bi erakundeak partekatzen dituzten helburuak ardatz hartuta Arrasate Zientzia Elkartek 2024 urtean garatzeko ekintza zerrenda prestatu du, bai eta jarduera horiek burutzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru baliabideen aurrekontua ere. Multzo horretatik adostu da proiektu zerrenda zehatza, hitzarmenaren xede izango dena.

4.- Arrasateko Udalak Arrasate Zientzia Elkartek azken urteotan burutu duen jarduera laguntzeko, bultzatzeko eta egonkortzeko helburuarekin aurreikusi du 2024an udal aurrekontuan hitzarmen bidezko diru laguntza bideratzea elkarteak burutu asmo dituen proiektuak finantzatzeko.

Gauzak horrela, Kultura Batzordeburuak akordio hau hartzea proposatu du:

1.- Hitzarmena sinatzea Arrasate Zientzia elkartearekin (eranskina).

2.- Hitzarmenaren jasotakoaren arabera Arrasate Zientzia Elkarteari 14.000 euroko laguntza ematea. Laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Laguntzaren %60, 8.400 euro, hitzarmena sinatu eta epe laburrean.

Sinatzailea/k	Alkatea:			
Kodea	N24/03528	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA13L15.J.ypFt			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA13L15J.ypFt			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024KZUD0010

Gaia: Arrasate Zientzia Elkartearekin hitzarmena
sinatzea

– Gainerakoa laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikazioa aurkeztu beharko da 2025eko urtarrilaren 30a baino lehen eta egin ahal izango da 2024eko laguntza deialdiak jasoko duen moduetako baten.

3.- Arrasate Zientzia Elkarteari 10 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalari adierazteko agindutako diru laguntza onartzen ote duen; epe horren barruan kontrakorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Elkarteak laguntza onartzen duela adierazteko bidal dezake Kultura sailera mezu elektroniko bat. Hitzarmena sinatzeak ere laguntza onartzen dela esan gurako du.

Alkateordea N24/03490 Alkatearen ebazpena, abenduaren 18koa

Sinatzailea/k	Alkatea:			
Kodea	N24/03528	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA13L15.J.ypFt			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA13L15J.ypFt			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				